



OHIZ KANPOKO BEGIRADA

Joxe Manuel Odriozola

Euskara irakaslea

Helbide elektronikoa: izarrekoa@euskalnet.net

Euskal Herria laborategi aparta omen da soziolinguistikaren gorabehertan arakatu nahi duenarentzat. Hori diote behintzat. Baina kultura soziolinguistikoa landua edukitzeak ez du besterik gabe berme handirik eskaintzen jakintza horren emaitza joria eskuratzeko. Diziplina horren oinarrizko kontzeptuak eta irakaspenak ezagutzeak ez baitu ezer askotarako balio aldi berean alfabetatze ideologikorik ez baldin badago. Soziolinguistikaren irakaspenak errotik antzutu eta indargabetu egiten ditu hizkuntzen arteko harremanak kudeatzeko behar den gaitasun ideologikorik ezak. Hobeki esan, ideologia hegemonikoak bere mirabe bihurtzen du kultura soziolinguistikoak eskain dezakeen argia. Esan gabe doa, noski, alderantzizko jokaerak ere ondorio makurrak dituela: ideologiaz itotako euskaltzaletasunak ere ez baitu argi handirik ematen arlo honetan.

Iñaki Larrañaga apaiz "atipikoa" da. Hala dio berak bere buruaz¹. Eta soziolinguistikaren mundu honetan ere ohiz kanpoko da bere ekarpena. Hasieratik beretik, José María Sánchez Carrión *Txepetx*² ezagutu aurretik ere, Larrañagaren begirada soziolinguistikoa ez da izan ohikoa. Inoiz ez da makurtu aldi aldiko ideologia hegemonikoaren esanetara. Dohain berezia izan du ikerlariaren eskakizun teorikoak hitzun herri

menderatuaren ideologiarekin uztartzeko. Bata eta bestea elkarrekiko harreman estuan oratu ditu. Emaitza: jakintza soziolinguistikoaren oreari ez zaio inoiz falta izan euskaltzale menderatuaren legamia bere lanetan.

1. NOLA GAUDE?

Apaltasuna du beste ezaugarri nagusi bat Larrañagak. Ez du bere burua inongo gailurretan ikusten. Baina, mendian gora doala, metafora honek gogoeta soziolinguistiko askok baino hobeki azaltzen digu euskararen herria nolako goeran dagoen:

“Bidean gora joatean beheko ibarrak lainoan ikusten diren bezala, edota laino artean mendixka batzuk ageri diren bezala, horrela ikusten dut euskararen nazioa, erdararen itsasoan irla batzuek osatzen duten uhartedi bat bailitzan. Han-hemenka, lainoan ageri dira gunek batzuk, elkarrengandik bananduak, sakabanatuak, euren artean loturarik gabe, aski egoera larrian. (...) Gutxi dira lainoan ez dauden lurak”³.

Hiztun herri baten osasuna batez ere bere barne artikulazioaren trinkotasunak bermatzen du. Konpaktazioaren ideia ideia-ardatza izan da Larrañagaren begirada soziolinguistikoan: hiztunen kopuruaz haratago, hiztunen arteko harremanak ehuntzen duen egitura soziolinguistikoan datza hiztun herriaren etorkizuna. Arrazoi osoa dauka horretan ere Itsasondoko apaiz atipikoak: munduko hizkuntza minorizatuei gainbegiratzeari aski da tesi horren zuzentasuna egiaztatzen. Barne trinkotasun sendoa duten nazio linguistiko txikiak askoz ere egoera hobean daude milioika hiztun dituzten komunitate desartikulatuak baino.

Larrañagaren hitzetan esateko:

“Esan behar da euskararen arazoa ez dela kopuru arazoa. (...) Kontua da Hizkuntz Komunitate hori hizkuntzaren funtzioen arabera artikulatzea eta konpaktatzea. Eta hori ez da kantitate edo estentsio arazoa, kalitate eta intentsitate arazoa baizik”⁴.

Euskaldungoaren egitura soziolinguistikoa erdiz erdi pitzatuta dago, beraz. Indar-iturri handienak huts egiten dio, ahula ahulagotzen duen faktoreak are egoera larriagoan utzi baitu bere etorkizuna. Baina, tira, hori ote da gaitzaren alderdirik makurrena? Edo bada okerragorik?

“Okerrera, ordea, zera da: euskal herritarrak lainoan bizitzen ohitu gara”⁵.

Baldintza soziolinguistiko objektiboak oso txarrak baldin badira, baldintza subjektiboak ez dira hobeak. Puntu honetan ere arrazoi osoa duela aitortu behar zaio Larrañagari: okerrenetan okerrera ez da ordezkape-nak eta asimilazioak hiztun herri bat hiltzorian uztea. Bada hori baino gauza okerrago bat. Eta gauza hori nabarmendu berri digu Lazkaoko euskaltzaleak: mendeko hizkuntz sumisioaren soslai ideologiko eta psikologikoetara ohitu egin dela euskaldungoa. Euskaldunen artean lautik batek ez dauka egoerak eskatzen duen kontzientzia soziolinguistikorik⁶.

*Inoiz ez da makurtu
aldian aldiko ideologia
hegemonikoaren
esanetara. Dohain berezia
izan du ikerlariaren
eskakizun teorikoak
hiztun herri
menderatuaren
ideologiarekin uztartzeko.*

**Larrañagaren begirada
soziolinguistikoan:
hiztunen kopuruaz
haratago, hiztunen arteko
harremanak ehuntzen
duen egitura
soziolinguistikoan datza
hiztun herriaren
etorkizuna.**

**“Okerrena, ordea, zera da:
euskal herritarrak
lainopean bizitzen ohitu
garela”.**

Ataka gaiztoari gain hartzeko dauzkagun hipotekak izendatzen hasten denean, hipoteka “psiko-sozialak” aipatzen ditu “azkenik”. Hemen ere lasai asko errepika dezakegu harako hura: alegia, “azkenik, baina ez azken”. Izan ere, asimilazioak eragin digun alienazioak euskaldunon sistema immunologikoa suntsitu digu. Zertan dira gaixotasuna atzemateko sintomak?

“Azkenik, hipoteka psiko-sozialak: euskaldunak lainopean bizitzen ohituak gaudela nioen lehen, gure hizkuntzarekiko daukagun gutxiespen, atxikimendu eskas eta indar gutxiko bulkadagatik, eta baita gizartean euskara balio gutxiko, prestigiorik gabeko, garrantzi gutxiko gauzak betetzeko erabiltzen delako ere” (Ibid.)

Dakigunez, hipoteka psiko-soziala errotik loturik dago beste hipoteka-mota batekin. Larrañagaren hitzetan adierazteko: “hipoteka teorikoa-ekin”. Euskarak diskurtso berri baten behar gorria omen du:

“Hipoteka teorikoak ere ez dira falta, euskararen nazioarentzat irtenbide faltsuak proposatzen baitira: elebitasun sozial orekatuarena, esaterako, nahiz eta ondo jakin ez teorian ez praktikan ez duela ez justifikaziorik ez bideragarritasunik, inoiz inon lortu ez den eta lortu ezingo den erueda delako”.

Erabateko iritzi hori eman ondoren, ñabardurak datoz. Ondo gogoa jasotzeko ñabardurak, dena esateko: gauza bat baita elebitasun sozialaren auzia behin-behineko bidetzat hartzea, eta beste bat, oso bestetik, behin betiko helburutzat finkatzea. Lehendabizikoaren egiak bigarrena gezur bilakatzen du.

Bide batez eta parentesi moduan: zabarkeria teorikoak ahultasun ideologikoa ekar dezake. Eta beldur naiz euskalgintzaren munduan ez ote den horrelako zerbait gertatu. Eraginkortasunaren bidea ondo dago bide hori eraginkorra baldin bada. Pragmatismoa balio emankorra izan daiteke testuinguruak eta jardunbideak hala baieztatzen badute. Baina zalan-tza handiak dauzkate euskararen aldeko normalizazio-dinamikak erakusten duten ezintasun ia erabatekoaz ohartuta: askotan, izan ere, egin daitekeena ez baita egin behar litzatekeenaren lagunik onena, arerioa baizik. Eta irudipena daukat egin behar litzatekeenetik gero eta urrunago gaudela eta egin daitekeena egitean ez dugula funtsezko urratsik egiten. Larrañagak ondo dioten bezala, praktikaren lagunik onena teoria on bat da.

Dena dela, goazen arestian aipatutako ñabardurak aletzera Larrañagaren eskutik. “Trantsizio fenomeno bat” baldin bada, halakotzat hartu behar genuke elebitasun sozialaren auzia:

“Elebitasun soziala munduan zehar bazterrera utzia dago. Elebitasuna fenomeno indibidual gisa onartzen da. Pertsona batek nahi dituen hizkuntza guztiak jakin ditzake baina lurralde batean hizkuntza bat da nagusi. Praktikan inon ere ez da gertatu elebitasunik eta teorian ere ezin da eman, trantsizio fenomeno bat delako, hizkuntza baten sustituzio prozesuaren barruan edo berreskuratze bidean”.

Elebitasun sozial orekatuaren mito⁹ honek behar ote zuen ordea honenbeste lerro oraindik? Ez al da garaia, arestian iradoki dugun gisan,

txikikeriok alde bazter uzteko? Beharbada ez. Beharbada "hipoteka teori-koak" badauka eraginik analfabetismo ideologikoan eta, orobat, gaitasun ideologikorik ez dagoen lekuan alferrik izan daitezke euskararen aldeko asmorik onenak. Euskararen herria eraikiko bada, ez da aski izango euskarazko nazio kultura begiz jotzea. "Kulturalismoaren" arriskuak saihestu beharko dira, beraz, nazio politiko hutsaren (estatuaren) arriskuak saihestu beharko diren modu berean. Eta horrek guztiak jarrera "radikala" hartzea eskatzen digu: hots, erroak ustelduta dituen hizkuntz nazioak ezin du bere bururik jaso gaitzaren araberako sendabideak ezarri gabe.

2. ZER EGIN?

Euskararen herriak bizitzaz beste egin nahi ez badu, zirt edo zart egin beharra dauka:

"Noski, konformismoaren bidetik gaur euskarak ez dauka irtenbiderik, ez euskarak eta ez inolako hizkuntza minorizatuk. Egoera minorizatuarekiko konformismoa suizidioaren pareko gertatzen da"¹⁰.

Munduko hiztun herri zapaldu gehienak itzulbiderik gabeko herio-bidean sartuak daude. Ez da iritzi bat, aho batez onartutako iragarpena da adituen artean. Euskararen egoerak ez ote du ezertan antzik herri horien zoriarekin? Gauza batean baino gehiagotan, seguru asko. Iparraldeko herri euskaldunaren patua bete-betean sartzen da iragarpenean. Eta Hegoaldeko sintoma nagusienak ere bai.

Ez dakit Larrañagak orain zer iritziko liokeen gure gaurko egoerari. Baina 1985eko bere hitzok argigarriak dira gure hizkuntza-osasunaren larritasunaz jabetzeko:

"Ikusten den bezala, hizkuntza batek bere iraupenerako dituen puntu neuralgiko guztiak pipiak jota dauzkagu. Sintoma hauek guztiak pentsarazten diote zenbait jenderi euskararen sustituzio prozesua itzuli ezinezko puntura iritsita dagoela, alarma seinale guztiak pizturik daudela alegia, eta euskara berreskuratzea ezinezkoa dela emergentziatzko plangintza bati dagozkion neurri garrantzak eta zehatzak hartzen ez badira"¹¹.

Nire iritziz, funtsean orduko egoeran gaude gaur ere. Egin diren gauza guztiak eginda ere egiturazko dinamika soziolinguistikorik ez da aldatu ordutik. Bai, esan bezala, geroztik gauza asko egin dira, baina horrek ez du esan nahi funtsezko gauzarik egin denik. Euskal familiaren barruko euskararen transmisioak hobeto funtzionatzen duela gaur egun Hegoaldean, erdal elebidunen multzoa asko hazi dela Euskadin, euskararen presentzia handiagoa dela esparru formal batzuetan... Eta zer? Horrek ez du dinamika soziolinguistikoko berri baten aurrean gaudenik adierazten. Horrek esan nahi du Euskadiko lurraldean hizkuntza minorizatuaren aldeko neurri batzuk hartu direla eta neurri horien emaitza batzuk sumatzen direla. Ez da besterik.

Okerrenetan okerrena ez da ordezkapenak eta asimilazioak hiztun herri bat hiltzorian uztea. Bada hori baino gauza okerrago bat.

Euskaldunen artean lautik batek ez dauka egoerak eskatzen duen kontzientzia soziolinguistikorik .

Euskararen herria eraikiko bada, ez da aski izango euskarazko nazio kultura begiz jotzea.

*Egin diren gauza guztiak
eginda ere egiturazko
dinamika
soziolinguistikorik
ez da aldatu*

*Larrañagak askotan esan
ohi duen bezala,
“subordinazio” egoera
tamalgarrian dago
euskara. Eta horrela
segituko dugu adabakien
politika gainditzeko gai
ez garen bitartean.*

Gauza jakina denez, ordea, hizkuntza minorizatuaren zoria aldatuko bada, hiztun herrien arteko botere-harremanak arautzen dituzten faktore subjektiboak eta objektiboak errotik aldatu ezean, ez dago zer eginik. Hizkuntza hegemonikoarentzat ona den egoera txarra da, hilgarria, euskararentzat. Lurralde bereko hizkuntzen egoera ez da ondoriorik gabea elkarrekiko: bataren estatus gailenduak bestearen mendekotasuna dakar ezinbestez. Larrañagak askotan esan ohi duen bezala, “subordinazio” egoera tamalgarrian dago euskara. Eta horrela segituko dugu adabakien politika gainditzeko gai ez garen bitartean.

“Ilusioa” bai, ilusioz gainezka gaude maizenik. Ez dakit zer ez genukeen egingo geure buruak engainatzeko. Badakizue, baikor izan beharra dago, baikortasunak berezko terapia-gaitasuna dauka, herriak bizipoza behar omen du, sentimendu positiboen iturrian ase behar omen ditugu geure energia-beharrak. Kultura emozionalaren aroan bizi gara. Asertibitatearen gaitasunean sinesten dugu.

Betoz, beraz, ilusio-saltzaileak:

“Eta zeharo artifiziala den hizkuntz egoera batera irits gintezke: ilusio bat sortu, ‘euskal gizarte batean bizi gara’, inguru euskaldun batean bizi bagina bezala, eta bitartean euskaldunetik ezer ez duen gizarte batean bizi gara, goitik behera erdaraz funtzionatzen duen batean. Horrela ez goaz inora”¹².

Estatu etnozentrikoen Kontituzioetatik hasi eta estatu etnozida horiek beroiek beren nazio-identitatearen etsaitzat joak dauzkaten hizkuntza, kultura eta identitate menderatuak erazteko erabili dituzten eta darabiltzaten baliabide guztiak kontuan harturik, zer egin? Espainiakoaz eta Frantziakoaz ari gara guri dagokigunez. Funtsean berdin-berdinak. Funtsezko alde bakarra honetan datza: lehenengoak euskaldunon heriotza luzatu egiten duela, heriotza humanizatu egin duela, artatze intentsiboen gelan sartu gaituela, eta bigarrenak, berriz, *liberté*, *égalité* eta *fraternité*ren izenean hilerrira garamatzala zuzen-zuzenean. Gainerako ñabarduretan galdu nahi duenak, ase dezala bere burua ilusioz eta sentimendu positiboz. On egingo dio eta bizitza emozional orekatuagoa izango du. Ez da gutxi.

Euskaldun gisa bizi nahi eta ezin biziaren egoera etsigarri honetan, zer egin dezakegu? Baldintza soziolinguistikoko objektiborik ez daukagu euskarritzat. Ukapenaren ukapenean bizi gara. Helduleku objektiborik ezean, helduleku subjektiboari atxikitzeko gomendatzen digu Larrañagak Txepetxen eskutik.

“Asuntoa zera da orduan: bizi gaitezen errealitatean hori bagina bezala, hots, funtziona dezagun nahikoa bagina bezala —praxi batek gainditu behar du trabaz betetako legearen testuingurua—, lurralde konpaktoko bat bezala eta komunitate linguistikoko oso bat bagina bezala. Horrela lortuko dugu nolabait komunitate horri zor zaion lurraldetasun horren kontzientzia esnatzea eta lurralde konpaktoko hori eraikitzea, praxi batean lehenik eta lege mailan aldaraztea”¹³.

Arestian aipatu dugu “kulturalismoaren” arriskua, eta arrisku hori-ke ikusi bide zuten Iñaki Uriak eta Pello Zubiriak Larrañagak egin berri

digun proposamenean. Euskal soziolinguistari egin zioten hurrengo galdera irakurri besterik ez dago dioguna baieztatzeko: “Hori ez al da kulturalismo baten izenean ilunegi edo konplikatuegi ikusten den irtenbide politiko bati zeharka alde egitea?”. Boluntarismoaren nolabaiteko apologia iruditu zitzaizen nonbait bi kazetari.

Larrañaga Txepetxen ahoz mintzo zaie erantzunean:

“Ez dut uste. Txepetek hori nazio kontzientzia batekin lotzen du, kontzientzia horren elementurik funtsezkoenen artean hizkuntza jarriaz. Hizkuntz komunitate horrek bere naziotasunaren kontzientzia lukeen neurrian errebindikatuko luke lurralde bat, naziotasunarekin eta subiranotasun politikoarekin lotua noski”¹⁴.

Euskarazko nazio kulturalaren eta nazio politikoaren (estatuaren) arteko artikulazioaren eskakizuna dago proposamenean. Elkarrekiko osagarri diren dinamika bikoitzak gaindituko lituzke batari eta besteari ezartzen zaizkion oztopoak: euskararen naziorik ezin da eraiki nazio politiko burujabearen kontzientziarik eta praxirik gabe, baina, halaber, euskal nazio politikoaren eraikuntza ere ezinezkoa da kontzientzia eta praxi soziolinguistiko euskaltzalerik gabe.

Larrañagaren ustez Txepetxen proposamena bide zuzenetik doa:

“Nire ustez azierto bat dago horretan Txepetxen aldetik: gaur egun hizkuntza komunitateak duen lurralde zatikatu hori berreskuratu ahal izateko, berreraikitze-ko, bide bat izan daiteke. Ikuspegi soziolinguistiko batetik ikusita oso planteamendu inportantea da”¹⁵.

Oker ez banago, azken boladan nik neuk zurkaiztuta dudan tesiaren antzekoa da oso Larrañagak Txepetxen eskutik aldeztu duena. Alegia, saihestu behar den arazoa ez dela “kulturalismoaren” aldetik datorrena bakarrik. Nazio politikoaren estrategiarik gabeko herri euskaldunaren aldeko bideak bide galduak direla. Hori ukazina da munduko hizkuntza minorizatuen panorama ikusita. Baina hori bezain arriskutsua da mundu abertzalean nagusi den estrategia: izan ere, nazio politikoaren eraikuntza-bideak ez dira euskarazko nazio kulturalaren zerbitzuan jartzen, hark bere xedeak lortu ondoren honenak lortuko direlako uste ustelean. Aldeak alde, abertzaletasunaren bertsio guztiak dira okerrak auzi horretan. Marko politikoaren eta juridikoaren ahalmen miraritsuak herri euskalduna ekarriko digu asimilazioaren eta alienazioaren leize zuloatik. Estrategia honen hutsala ere erraz egiazta daiteke munduko hiztun herri menderatuen patua gainbegiratuta.

3. AZKEN XEHETASUNAK

Iñaki Uriak eta Joxemi Zumalabek honako galdera hau egin zioten behin Larrañagari:

“Euskarazko hizkuntz komunitate horren barnean kontsideratzen dira, hizkuntza galdu baina kontzientzia daukatenak?”.

Erantzuna baiezkoa izango da:

Euskararen naziorik ezin da eraiki nazio politiko burujabearen kontzientziarik eta praxirik gabe, baina, halaber, euskal nazio politikoaren eraikuntza ere ezinezkoa da kontzientzia eta praxi soziolinguistiko euskaltzalerik gabe.

***Nazio politikoaren
eraikuntza-bideak ez dira
euskarazko nazio
kulturalaren zerbitzuan
jartzen, hark bere xedeak
lortu ondoren honenak
lortuko direlako uste
ustelean.***

***Erdarak eta erdaldunak
ez daukala lekurik herri
euskaldunaren
eraikuntzan eta izaeran.***

“Bai, hizkuntz komunitate baten barnean egon daitezke hizkuntz talde edo hiztun-talde mota desberdinak: hiztun osoak, hiztun soilak, sasi-elebidunak eta erdaldunak... eta horiek guztiak ere hizkuntz komunitatea izango lirateke maila batean bederen”¹⁶.

Herri euskaldunaren kontzeptuan erdaldunak sartzea ez ote da hizkuntzari buruz dugun irudia aldrebestea? Badakit iritzi hori Txepetxen irizpideetan oinarrituta dagoela. Eta zentzuzko irizpideak izan daitezkeela hainbat eta hainbat ñabardura egin ondoren. Baina, horrela, printzipioz, besterik gabe, nik neuk behintzat ez nuke onartuko iritzi hori.

Herri euskalduna edo euskaldunen hizkuntza komunitatea hizkuntza baten jarduera historikoak eraiki duen gizarte egitate bat da. Ondo esan dut: hizkuntza baten giza eta gizarte jarduerak eraikitako sistema soziolinguistikoaz ari gara. Beraz, ez da borondate kontua, ez da hiztunen asmo eta gogoetan oinarritutako gizarte-egitate historikoa. Hizkuntzaren, hots, euskararen erabilerak ezaugarritu du komunitate hori eta, horrela, munduko gainerako hiztun herrien artean berezi egiten du. Hizkuntzak, izan ere, sozializazioaren joan-etorrian, nortasun bereziko komunitatea eraikitzeko eskua dauka.

Zer esan nahi dudan aurreko horrekin? Bada, labur bezain trinko esateko, honako hau: erdarak eta erdaldunak ez daukala lekurik herri euskaldunaren eraikuntzan eta izaeran. Horixe besterik ez, baina hori guztia. Eta esandakoa berresango dut berriro ere: hiztunak edo komunitateak ez duela sortzen hiztunaren edo komunitatearen izaera soziolinguistiko berariazkorik hizkuntza jakin eta bereziaren ezaugarritze-ahalmenik gabe. Bakoi-tzari berea hemen ere. Gizakiak ez dezala hau edo bestea izatearen meritu guztia bereganatu, meritu horren parte nabarmen bat beste zerbaitek daukanean. Ez euskaldun izatearena ez gizaki izatearena: urlia euskaldun baldin bada, euskararen jardunari dagokio ezaugarri hori, eta gizakia gizaki baldin bada, besteak beste, hizkuntzaren bitartekotzari zor dio dohain hori.

Beste upel bateko sagardoaz ari gara, ordea, ondoko honetaz mintzo garenean:

“Horregatik ezin da euskal hiztuna ez den pertsona batek esatea edo uste izatea zerikusirik ez duela (euskal) hizkuntzarekin, berari ez dagokiola; hori da agintean daudenen zenbaitek sinestarazi nahiko lioketena, euskarari buruz ez arduratzeko, alegia. Hori ezin da onartu. Izan ere komunitate baten partaide hori egon daiteke nolabait zaurituta, mutilatuta, edo (euskal) hizkuntzaren komunitetik kanporatuta, ez bere aukeraz, baizik eta, eta hau da inportantea, berak zerikusirik izan gabe, euskararik gabe geratu delako lurralde horretan eta bidez guztiak erabili direlako horiek (euskal) hiztun izan ez daitezten”¹⁷.

Hemen kontua besterik da, guztiz besterik: gainjarri zaizkigun estatu hedakorren ondorioz estatu horien hizkuntza eta kulturen mendeko eremuan harrapatuta geratu den herritarra —nor dago, bestalde, alde edo moldez, eremu horretatik salbu?— estatu mota horiek eragindako etnozidioaren biktima da. Euskal herri historikoaren suntsipena ekarri duten estatu moderno irensleen biktima.

Kolonizazio linguistiko eta kulturean horren kontzientzia hartzea, ordea, ez da batere erraza izaten. Alienazioak, izan ere, alienatu gaituena-
ren ezpaleko bihurtzen gaitu. Izan ginena eta garena antagonikoak dira
honezkerok, eta kontraesan horren kontzientzia hartzea biziki lan gaitza
da. Besteak beste, nork bere buruaren kontra daukan lehia delako hori.
Kontraesan handi horretan sarturik dagoenaren ataka honela azaldu izan
dut azken bolada honetan: “espainol izan nahi ez duen espainola”. Ale-
gia, ideologia nazionalaz abertzalea izanda hizkuntzaz eta kulturaz
espainola dena.

Nola jokatu euskaldungotik at bizi direnekin? Larrañagaren iritzira
jardunda, hona erantzuna:

“Horien gaurko egoera ezin da baloratu ikuspegi sinkroniko hutsez, esate bate-
rako, momentu honetan honela daude horiek, ikuspegi diakroniko bat behar da
esateko, horretaraino iristeko nondik nora joan diren edo zer gertatu zaien. Erri-
bera ez da euskalduna eta kito, edo Errioxa eta Enkarterriak ez dira inoiz eus-
kaldunak izan eta kito. Hori, besterik gabe ezin da esan. Egoera horretara noiz,
nola eta zergatik iritsi diren jakin behar da, eta ondoren, egoera horretatik irte-
ko zer egin behar den erabaki”¹⁸.

Ikuspegi diakronikoaren premia aipatu digu Larrañagak ordezkape-
nak sortutako egoera tratatzeko. Historia kontua hartzeko esan nahi izan
digu. Izan ginenari muzinik egin gabe jarduteko. Ez baitago iraganik gabe-
ko oraindiririk, gaurko izatea bera atzoko izanari zor zaiolako. Etorkizune-
ko euskal herririk eraikitzen baldin badugu inoiz, iraganeko euskaldunta-
sunaren humusean eraikia izango da, edo ez da herri euskaldunik izango.

Bide batez, eta amaitze aldera, dakardan hari-harira datorren auzi
bat hona. Oraindik orain Andoni Olariaga eta Jon Jimenezek egotzi dida-
te aldezen dudak euskalduntasunak izaera metafisikoa duela, inoizko
eta betiko esentzia bat bailitzan ulertzen dudala euskaldun izatearen zeri-
zana. Eta ondoko lelo hau ez dela egokia: “Izan ginelako izango gara”.
Horretarako, Iñaki Sotoren iturrira jo eta honako hau gogorarazi didate:
“Izango gara baldin eta izan nahi badugu eta lortzen badugu tokatu zaiz-
kigun baldintzetan izatea (suizidioaren posibilitatea ere hor baitago)”¹⁹.

Esentzialismoaren gezia ondo datorkigu borroka ideologikoaren ere-
muan geure argudioa gizentzeko, baina gehienetan ez du argitzen auziaren
muina. Eta auziaren muina, oso oker ez banago, honako honetan datza: gure
herriaren oraina nazio-errealitate asimilatua dela, eta “orain” horretan baka-
rrik oinarritutako nazio eraikuntza oro “tranpa” bat dela. Abertzaletasuna-
ren ideologia guztiak praktikatzan duten tranpa bat, bidenabar esateko.

Larrañagak ondo asko salatu zuen “tranpa” hori bere garaian. Mere-
zi du berriro ere gogoratzea, guk gaztetan egin genuen akats berbera egi-
ten baitute gaurko gazte abertzale gehienek.

“Egin dezagun gure iraultza, gizarte kapitalista honen zuzenketa eta ondoren
konponduko ditugu hizkuntzak dituen arazoak. Eta bestea: independentzia lor-
dezagun, eta behin independentzia politikoa eskuratu dugunean, orduan egin
ahal izango dugu hizkuntzaren normalizazioa. Biak tranpa besterik ez dira”²⁰.

*Etorkizuneko euskal
herririk eraikitzen baldin
badugu inoiz, iraganeko
euskalduntasunaren
humusean eraikia izango
da, edo ez da herri
euskaldunik izango.*

Ez dezagun ahortzi. Ez dugula orainaren araberako etorkizunik eraiki behar baizik eta izandako herri euskaldunaren ezpaleko herri euskalduna. Nahi den baldintzapen eta ezaugarri historiko guztiekin, nahi den identitate-kontzeptu dinamiko eta aldakor guztiekin, baina euskalduna.

Lehenengo tranpa ideologia espainolistaren tranpa zen. Bigarrena, berriz, beren bizitzako zereginetan espainolez edo frantsesez eroso eta gustura sentitzen diren abertzaleen gordelekua da. Hizkuntza oroz gain komunikatzeko bitarteko instrumentala hutsa dela uste duten abertzaleen praxia. Euskaraz eraikitzen ez den nazio politiko burujabeak euskarazko nazio kulturala bidera dezakeela pentsatzen dutenen uste ustela.

Larrañagarekin eta Txepetxerekin bat, ekar dezagun gogora azken honen liburu mardularen izenburua: "Etorkizun bat, gure iraganarentzat". Ez dezagun ahortzi, iragana, oraina ez bezala, euskalduna izan genuela. Ez dugula orainaren araberako etorkizunik eraiki behar, horretarako nahikoa dugu-eta gauden bezala egotearekin, baizik eta izandako herri euskaldunaren ezpaleko herri euskalduna. Bai, jakina, nahi den baldintzapen eta ezaugarri historiko guztiekin, nahi den identitate-kontzeptu dinamiko eta aldakor guztiekin, baina euskalduna. Hortxe dago koska guztien koska.■

OHARRAK

1. "Apaiz atipikoa izan naiz eta orain ere hala naizela iruditzen zait. Ene ustez, arimarekin bat eginik aurkitzen dira gorputzak; hortaz, arima salbatu nahi bada, gorputza salbatzetik hasi behar da. Hau da, gizakia morrontza eta menpekotasun guztietatik libratu nahi bada, gorputzaren gose-egarriak asetzetik hasi eta injustiziaren, marjinazioaren, esplotazioaren eta enparauen lokarrietatik askatzetik jarraituz, gizakia bere osotasunean hartuta, gorputz eta espiritu askatu behar dela, alegia". "Iñaki Larrañaga (1998): 'Bide berriak urratzeak gailur berriak ikustarazten dizkigu'", *Zenbat gara*, 2. zenbakia.
2. "Noski, ez Txepetxek bakarrik, beste batzuek ere gin dituzte dudarik gabe beren aportazioak eta hor daude: gure artean lehenik ezagutu genituenak katalan eta valentziarrak (Valverdú, Ninyoles eta, bereziki, Aracil izan ziren ezagunenak. Bestalde, Estatu Batuetako Fishman eta Quebeceko Mackey. Europarren artean Calvet izan genuen ezagunena. Geroztik ezagutu ditugu beste batzuk ere. Bakoitzak egindako aportazioak interesgarriak badira ere, nik pertsonalki esan behar dut, irakurritako guztien artean ez dudala Txepetxek ematen duen osotasunean eta zehaztasunean hizkuntzaren biziraupenaren legeen nondik norakoaren berri ematen duen inor aurkitu. Bakoitzari berea, hori da gizalegea". "José María Sánchez Carrión *Txepetx*-en teoriaren ekarpen eta aplikazioaz", *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 18. zka., 1996, 28. or.
3. Larrañaga, Iñaki (1998), "Bide berriak urratzeak gailur berriak ikustarazten dizkigu", *Zenbat gara*, 2. zenbakia.
4. Larrañaga, Iñaki (1998), "Euskararen egoerari buruzko ikerketak: euforia-giroa eta konfusio-zeremonia", *Zenbat gara*, 3. zenbakia.
5. Larrañaga, Iñaki (1998), "Bide berriak urratzeak gailur berriak ikustarazten dizkigu", *Zenbat gara*, 2. zenbakia.
6. "Euskaldun gehienak (%72) ez dira inoiz baztertuak sentitu euskaraz hitz egin nahi izateagatik. %25ek diote aldiz baztertuak sentitu direla arrazoi horregatik". Askoren artean (2006), *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, Eusko Ikaskuntza, 67. or.
7. Ibid.
8. Larrañaga, Iñaki (1985), "Euskararen sustutuzio prozesua ez da gelditu", *Larrun*, 1. zenbakia, 28. or.
9. "Elebitasuna elebakartasun baten alde erabiltzen den mito bat da". Ibid., 28. or.
10. "Iñaki Larrañagarekin elkarriketa: 'Normalizazioa ez da elebitasun soziala'", 1990, *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 1. zenbakia, 63. or.
11. Ibid., 26. or.
12. Ibid., 25. or.

13. Larrañaga, Iñaki (1985), "Euskararen sustutuzio prozesua ez da gelditu", *Larrun*, 29-30 orr.
14. Ibi., 30. orr.
15. Ibi., 30. orr.
16. "Iñaki Larrañagarekin elkarrizketa: 'Normalizazioa ez da elebitasun soziala'", 1990, *Bat soziolin-
guistika aldizkaria*, 1. zenbakia, 65. orr.
17. Ibi., 65-66. orr.
18. Ibi., 66. orr.
19. Andoni Oleaga, Jon Jimenez, "Euskal identitatea: 'izan' ala 'eraiki'?", *Berrin*, 2010-06-04.
20. Aracil, V. Luis eta Larrañaga, Iñaki (1984), *Euskara gizarte bizitzan*, Tolosako Udala, 72. orr.